



**EBAZPENA,
HEZKUNTZA SAILBURUORDEARENA,
HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN
TITULARTASUNEN
KONTSERBATORIOEK 2011-2012
IKASTURTEAN IZANGO DUTEN
ANTOLAMENDUARI BURUZKOA**

AURKIBIDEA

1.- IKASTETXEAREN JARDUERA PLANIFIKATZEKO ETA ANTOLATZEKO TRESNAK.....	3
1.1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua.	
1.2.- Kudeaketa-proiektua.	
1.3.- Ikastetxearen urteko plana.	
1.4.- Urteko memoria.	
1.5.- Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia	
1.6.- Irakaskuntza profesionalen ikasketa-plana, ezkontzako Lege Organikoa (LOE) ezartzean	
2.- IRAKASLEEN ANTOLAMENDUAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK.....	23
2.1.- Irakaslegoaren lanaldia	
2.1.1. Urteko lanaldia	
2.1.2. Asteko lanaldia	
2.1.2.1. Ohiko dedikazioa duten irakasleak.	
2.1.2.2. Jardun murriztua duten irakasleak	
2.1.2.3. Eskola-orduen heren bateko murrizketa duten irakasleak	
2.1.2.4. Txandakako lan-kontratua duen	
2.2. Zuzendaritza-taldearen ordutegi-murrizketak.	
2.3. Ordutegiak	
2.3.1. Ordutegiak lantzea	
2.3.2. Ikastetxearen ordutegia onartzea eta jakinaraztea	
2.3.3. Ordutegia betetzea.	
2.3.4. Baimenak	
2.3.5. Jardueretara bertaratzea eta funtzioak esleitzea.	
3. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAMENDUAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK.....	29
3.1. Irakasgaien eta taldeen banaketa.	
3.2. Ratioak eta eskola-denborak.	
3.2.1.- Ratioak eta irakas-denborak taula hauetan adierazitakoak dira.	
3.2.2.- Horiek aplikatzeko irizpideak hauek izango dira:	
3.3. Ekintzak.	
3.4. Koordinazio pedagogikoko organoak	
3.4.1. Sailak	
3.4.1.1. Sailak eratzea	
3.4.1.2. Sailaren funtzioak	
3.4.1.3. Sailaren bilerak	
3.4.1.4. Sailen programazioak	
3.4.1.5. Sailaren burutza	
3.4.1.6. Dokumentazioa	
3.4.2. Koordinazio pedagogikoko batzordea.	



- 3.5. Guardiak
 - 3.5.1. Funtsezko zereginak
 - 3.5.2. Guardiaren agiria
- 3.6. Tutoretzak
 - 3.6.1 Irakasle tutorearen funtzioak
 - 3.6.2 Hutsegiteen kontrola.

4.- IKASLEEN ANTOLAMENDUAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK.....37

- 4.1. Ikasleen antolamendua.
- 4.2. Espezialitate-aldaketa.
- 4.3. Sailaren titulartasuneko kontserbatorioetako ikasleen espedientea lekualdatzea.
- 4.4. Ikasleen ordutegia.
- 4.5. Berariazko neurriak.
- 4.6. Matrikulari uko egitea
- 4.7. Ikasleak bertaratzea.
- 4.8. Ikastetxez kanpoko jarduera didaktikoak.

5.- IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK.....40

- 5.1. Ebaluazio-bilerak
 - 5.1.1. Ebaluazioaren baldintzak.
 - 5.1.2. Bileraren akta.
 - 5.1.3. Aparteko probak
- 5.2. Kalifikazioen gaineko erreklamazio-prozedura
 - 5.2.1 Erreklamazioak ikastetxean.
 - 5.2.2 Ikastetxeaz kanpoko instantzien aurreko erreklamazioa.

6.- IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA.....42

- 6.1. Irakasleen prestakuntza
- 6.2. Osasun-arreta eskola-orduetan
- 6.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzeko modua
- 6.4. Obrak
- 6.5. Segurtasun laguntzailea
- 6.6. Irakasleriaren prestakuntza prebentzio arloan
- 6.7. Larrialdietako simulazioak
- 6.8. Tabako eta alkoholaren edariak
- 6.9. Botikin eramangarria
- 6.10. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

7.-HEMEN JASO GABEKO KONTUAK.....43



**EBAZPENA, HEZKUNTZA SAILBURUORDEARENA, HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN
TITULARTASUNEN
KONTSERBATORIOEK 2011-2012 IKASTURTEAN IZANGO DUTEN ANTOLAMENDUARI
BURUZKOA**

Ebazpen hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren titulartasuneko kontserbatorioetan ematen diren irakaskuntza arautuetan aplikatuko da.

Ikastetxeko zuzendariak beharrezko neurriak hartuko ditu ikastetxeko irakasle guztiek ebazpen honen edukia oso-osorik ezagutzen dutela bermatzeko.

Era berean, Ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenei Legeak ematen dizkien eskumenak kontuan izanik eta ebazpen honetan lantzen diren gaiak aintzat hartuta, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldeak ebazpen honen edukiaren berri emango dio dagokion Ordezkaritza Organo Gorenari, organo horrek 2011-2012 ikasturtearen hasieran egiten duen lehen bileran.

1.- IKASTETXEAREN JARDUERA PLANIFIKATZEKO ETA ANTOLATZEKO TRESNAK.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean eta 229/2007 DEKRETUA, abenduaren 11koa, jasotzen direnez, ikastetxeek autonomia dute beren jardueraren antolamendurako hainbat tresna lantzeko, onartzeko eta burutzeko.

Ikastetxearen antolamendurako tresnen artean ondokoak nabarmentzen dira:

- 1) Hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua.
- 2) Kudeaketa-proiektua.
- 3) Urteko plana.
- 4) Urteko memoria.
- 5) Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudia

Ebazpenaren lehen kapitulu honetan plangintzaren alderdi horiek aztertuko dira, eta ikasturte honetan aintzat hartu beharko diren lehentasunak edo gutxienezko alderdiak ezarriko dira.

1.1.- IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA CURRICULUM PROIEKTUA

Bi proiektu horiek oso lotuta daude eta ikastetxeen autonomia pedagogikoaren adierazpen argia dira: eskola-elkartearen sektoreek bere gain hartuko duten hezkuntza-aukera baten aldeko apustua (hezkuntza-proiektua) eta irakaskuntzan izango duen isla (curriculum-proiektua).

Ezinbestekoa da ikastetxeek bi antolamendu-tresna horiek edukitzea. Izatez, bi tresna horiek hobetu ahal izango dira eta, ondorioz, noizean behin berraztertu egin beharko dira.

Ikastetxe bakoitzak bere aukeren arabera zehaztu beharko ditu bere aukerak, premiak eta lehentasunak. 2011-2012 ikasturtean lehentasunez zer alderdi jorratuko duen, eta alderdi horietako bakoitza zer sakontasunez landuko duen finkatu beharko du.



Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua pixkanaka bideratzean, erabaki jakin batzuk hartu beharko ditu, eta erabaki horiek ikastetxe bakoitzean posible den zehaztapen-maila eta garapen-maila izango dute. Erabaki horiek eta ikasturtean izan duten zehaztapen-maila idatziz jaso beharko dira, eta gogoeta-prozesuaren ondorioztat eta aurrerantzean egin beharreko urratsen oinarritzat hartu beharko dira.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikulua dioenaren arabera, irakasle-talde guztiak eta irakasleak eurak ikastetxearen hezkuntza-proiektuari (IHP) eta ikasketa-proiektuari (IIP) loturik egongo dira. Horiei men egitearen barruan, eskolako jarduerak lantzeko eta programatzeko egoki irizitako erabakiak hartu ahal izango dituzte. Irakasle bakoitzaren erabaki horiek, dena den, beti egon behar dute IHPk eta IIPk ezarritakoaren mende.

Hezkuntza-proiektua egitea errazteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak *“Ikastetxearen hezkuntza-proiektua lantzeko gida”* eman du argitara (Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua).

Hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua ikastetxe bakoitzaren elementu definitzaile eta bereizgarriak direnez, komenigarria da horien definizioan eta helburuetan hiru ikastetxeetarako komunak diren elementuak egotea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren sistema publikoak lortu nahi duen ikaslearen eta profesionalaren irudia, prestakuntza, estiloa lotzeko.

Ildo horretatik, EIO (Euskadiko Ikasleen Orkestra) topaketa-gune eta abiapuntu izan daiteke proiektua bera sendotzeko, baina bai eta proiektuaren funtzionamendua, jarduera egonkorra eta jarduera berezia normalizatzeko ere; jarduera hori, hain zuzen, komuna da, hiru ikastetxeek hartzen dute parte bertan eta hirurek zuzentzen dute ikastetxeko koordinatzailearen bitartez. Alde horretatik, orkestra-irakasgaiaren eta oinarritzako aukerako irakasgaien programazioan batera lanean jardunez gero, EIO-rako ezarritako urteko errepertorioan txertatutako multzo gisa ulertuta, kontserbatorioen koordinazio- eta koherentzia-osagai garrantzitsua izango litzateke.

Halaber, Musikari Gazteen Lehiaketa antzeko lerro batetik bidera daiteke, espezialitate bakoitzean derrigorrezkoa den obraren bat ezarrita adin-tarte bakoitzean, antzeko programazioa eta koordinazioa lortu ahal izateko.

1.2.- KUDEAKETA-PROIEKTUA.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen V. kapituluak ikastetxe publikoen autonomia finkatzen du. Autonomia horren barruan, bere jardura ekonomiko-finantzarioa kudeatzeko ahalmena barne hartzen da; hortaz, ikastetxeak berak izango du bere kudeaketa-proiektua onartzeko eta burutzeko ahalmena.

Ikastetxeek beren kudeaketa-proiektua izango dute; alabaina, Ordezkaritza Organo Gorenak proiektu hori onartu beharko du eta bete dadin zainduko du. Gainera, proiektu horren ebaluazioa egingo du, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 28.3. artikuluan xedatzen denari jarraituz.

1. 3.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

Ikastetxeko zuzendaritza-taldea arduratuko da ikastetxearen urteko plana lantzeko jardunaren koordinazioaz, eta, horretarako, kasuan kasu dagokion kide anitzeko organoa izango du. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak plan hori onartu beharko du, betiere Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak irakaskuntza-jardueren programaren arloan klaustroari esleitzen dizkion eskumenen kalterik gabe.

Planak ondokoa barne hartuko du:

a).- Irakaskuntza-jardueren programa

Irakasleen klaustroak eta, hala badagokio, horrek ordezkoko jar dezakeen batzorde batek landuko du programa hori.

Irakaskuntza-jardueren programan bilduko dira ikasturte horretan ikastetxearen eta eskola-jardueraren antolamendurako hartzen diren erabakiak –dauden ikasleak eta baliabideak kontuan izanik hartuko dira beti–: irakasleei zereginak esleitzeko irizpideak, irakastorduek banatzeko eta ikastetxean eman beharreko denbora esleitzeko irizpideak, irakasleen eta ikasle-taldeen ordutegiak, ikasleak biltzeko irizpideak, espazio komunen banaketa, baliabide didaktikoen antolamendua eta abar. Irakaskuntza-jardueren programan, halaber, curriculum-proiektua idazteko plana eta xede horretarako ikasturte honetan burutuko diren jardunak bilduko dira.

b) Prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarrien programa

Urteko planaren atal hau lantzea zuzendaritza-taldeari dagokio, eta atal honek ere Ordezkaritza Organo Gorenaren oniritzia izan beharko du.

Programak ikastetxearen antolamenduan eragina duten eta lan-denboran egingo diren prestakuntza-ekintzak gutxienez barne hartu beharko ditu.

Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programan, berriz, ondokoak bildu beharko dira:

1.- Irakastorduetan egiten diren eta, programazioaren parte izanik ere, izaera berezia duten jarduera didaktikoak. Jarduera didaktiko horiek izaera berezikoak izan daitezke burutzen diren une edo lekuarengatik, erabiltzen diren baliabideengatik, edo ikastetxeari eskatzen dioten inplikazioarengatik.

Jarduera horiek ikasle guztiei zabalik izango dira.

2.- Irakastorduez kanpo ikasleekin egiten diren eta borondatezko parte-hartzea duten ekintzak. Ekintza horien plangintzan definituko dira helburuak, arduradunak, burutzeko unea eta lekua eta ikasleek parte hartzeko modua. Alderdi edo ondorio ekonomikoak kudeaketako urteko programan jaso beharko dira.

Kontuan izan beharko da ikastetxearen herritik kanpo egiten diren ekintzetan ezinbestekoa izango dela guraso edo tutoreen baimena, Ebazpen honen 4.8. atalean arautzen den moduan.

c).- Kudeaketako urteko programa

Ikastetxearen urteko kudeaketa-proiektua kudeaketako urteko programan jasotzen da. Programa horren helburu nagusia ikastetxearen aurrekontua lantzea eta onartzea izango da, uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan xedatzen denaren arabera (98-09-14ko eta 98-09-23ko EHAA).

Urteko planaren zati hori zuzendaritza-taldeak landu beharko du, ondoren Ordezkaritza Organo Gorenak onar dezan.

Programa honetan gastua eragingo duten jarduera guztiak barne hartuko dira, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak barne. Atal guztiak bereizi beharko dira, sarrera-iturriak, gastuaren aurreikuspenak eta irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar.

Ikastetxeek 2011-2012 ikasturtearen hasieran ikasturte horretarako urteko plana landuko dute, eta plan horren bitartez egingo dute ikastetxearen jardueren plangintza, antolamendua eta kudeaketa. Plan hori urriaren 30a baino lehen landu eta onartu beharko da, eta Hezkuntzako Ikuskatzailearen esku egongo da ikastetxearen idazkaritzan.

1.4.- URTEKO MEMORIA

Memoria ekainaren azken asteetan eta irailaren lehenengo asteetan egingo da; zehazki, zuzendaritza-taldea arduratuko da egiteko hori koordinatzeaz. Ikastetxearen Urteko Plana zenbateraino bete den aztertuz eta lortutako eskola-eraketak aintzat hartuz, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du; hau da, ondorioak atera eta hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak egingo dituzte, eta, horrez gain, lehenengo batzuk jarriko dituzte, ikastetxearen hurrengo planean helburutzat hartuko direnak. Urteko Memoria OOGk edo Eskola Kontseiluak onartu behar du.

Memoria eta Ikastetxearen Urteko Plana urriaren 30a baino lehen egin eta onartu behar dira, ezinbestean.

MEMORIA eta URTEKO PLANA labur eta zehatz egingo dira, ikastetxean bertan erraz erabili ahal izateko, eta gero, idazkaritzan jasoko dituzte Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura; hau da, egiten dituen bisitaldietan egoki irizten dituen azterketak eta ebaluazioak egin ditzan.

OHARRA: Urteko Plana eta Memoria egiteko, gida eguneratuak daude lurralde-ikuskaritzan, berritzeguneetan eta Hezkuntza Saileko web orrian

1.5.- ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUDIA

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren aldaketa ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian, eta horretarako sei hilabeteko epea finkatzen du, dekretua argitaratzen denetik hasita..

Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako berezko dokumentua da. Agiri hori derrigorrezkoa da Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29. artikulua hala ezarri duelako.

Hona araudi horren gutxienezko edukia:

- Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako egituraren definizioa.
- Arauak, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko begirunea eta bizikidetzak bermatzeko eta lokal-instalazioak egoki erabiltzeko.
- Ebaluazioetan erreklamazioak egiteko araubidea.

Arestian aipatutako dekretura egokitzeko ikastetxeek AJA hori alda dezaten, Hezkuntzako Ikuskaritzak eredu orientagarri bat jarri du ikastetxe guztien eskura, baina ez da nahiaezkoa.

1.6.- IRAKASKUNTZA PROFESIOALEN IKASKETA-PLANA, LOE EZARTZEAN

Curriculum osoa egiteko, aparteko ahalegina egin behar dute musika-ikasleek, erregimen orokorreko curriculumari erantsen baitaizkie haien ikasketak. Horrenbestez, 16 urtetik beherako ikasleek erregimen orokorreko ikasketak derrigorrean egin behar dituztela kontuan hartuta, beharrezko diren antolaketa-neurriak ezarriko dira, ikasketak aldi berean egiteko aukera eman eta erraztuko dutenak; horretarako, hain zuzen, indarrean dauden baliozkotzeak aplikatuko dira.



Bestalde, ikasleei jakinarazi behar zaie batxilergoko derrigorrezko irakasgaiak eta musikako irakaskuntza profesionala edukiz gero, musikako batxilergo-titulua eskura dezaketela, horrek dituen ondorio guztiekin; beraz, maila horretan musika-ikasketen alde argi eta garbi egiten duten ikasleek batxilergoko beste espezialitate bateko irakasgaiak alde batera utzi ahal izango dituzte. Horri dagokionez orientazio eta motibazio egokia izateak mesede egin diezaiokie ikaslearen dedikazioari nahiz ikasleak egindako aukerarekiko duen gogobetetzeari.

Abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuan (2008ko martxoaren 13ko EHAA), musikako irakaskuntza profesionalaren curriculum eta prestakuntza hori eskuratzeko modua zehaztu da.

Hori ezartzeari dagokionez, hurrengo lerroetan kontserbatorio bakoitzeko irakaskuntza-
taula adierazi da.

A) Juan Crisóstomo de Arriaga

1.-Espezialitatea: Akordeoia eta Kitarra

IRAKASKGAIAK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan											
				1º		2º		3º		4º		5º		6º	
				B		B		B		B		B		B	
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180		1		1		1		1		1		1
		Musika Hizkuntza	120		2		2								
		Harmonia	120					2		2					
	ESPEZIALI TATEA	Ganbera musika	300					1		1		1			1
		Talde			1		1		1		1				
E H A E		Instrumentu Osagarria	60		0,5		0,5		0,5		0,5				
		Akonpainamendua	90								1,5		1,5		
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	270/300									4		4	
		Aukerako irakasgai osagarriak										0,5/1		0,5/1	
		Guztira	1140/1170		5,5		5,5		5,5		5,5		8/8,5		8/8,5

2.- Espezialitatea Harpa

IRAKASGAIK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
GUTXIE NEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera Musika	360			1	1	1	1
		Talde		1	1	1	1		
		Orkestra						2	2
EHA E		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	270/300					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
Guztira			1110/1140	4,5	4,5	5,5	5,5	8,5/9	8,5/9

3.- Espezialitatea Egurrezko Haizea (Saxofoia izan ezik) eta Metal Haizea

IRAKASKAGAIA			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
GUTXIE NEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera Musika	480			1	1	1	1
		Banda		2	2	2			
		Orkestra					2	2	2
EHA E		Piano osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	270/300					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
Guztira			1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5

3.1.- Espezialitatea kontrabaxua

IRAKASKAGAIA			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera Música Banda	480	2		1	1	1	1
		Orkestra			2	2	2	2	2
E H A E		Piano osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	270/300					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
		Guztira	1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5

4.- Espezialitatea Saxofoia

IRAKASGAIK			ORDUA	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika Talde Korua	480	2	2	2	2	1	1
		Instrumentu Osagarria						2	2
E H A E		Piano Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	270/300					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
		Guztira	1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5

5.- Espezialitatea Perkusioa

IRAKASGAIAK		ORDUAK	<u>Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan</u>						
			1º	2º	3º	4º	5º	6º	
			B	B	B	B	B	B	
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	120			1	1	1	1
		Talde	180					2	2
		Korua	120	2	2	2			
		Instrumentu Osagarria	60				2		
E H A E	Piano osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5			
	Aukerako irakasgai oinarrizkoak	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	
	Aukerako irakasgai osagarriak	240					4	4	
	Instrumentua	30/60					0,5/1	0,5/1	
Guztira		1320/1350	6	6	7	9/9,5	9/9,5	9/9,5	

6.- Especialitatea Biola, bibolina, biolencelo

IRAKASGAIAK		ORDUAK	<u>Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan</u>						
			1º	2º	3º	4º	5º	6º	
			B	B	B	B	B	B	
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	120			1	1	1	1
Talde		360	2	2	2	2	2	2	
E H A E	Korua	60	0,5	0,5	0,5	0,5			
	Instrumentu Osagarria	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	
	Piano osagarria	240					4	4	
	Aukerako irakasgai oinarrizkoak	30/60					0,5/1	0,5/1	
Aukerako irakasgai osagarriak		1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5	
Guztira									

7.- Espezialitatea kantu

IRAKASGAIAK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
GUTXIEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
		Ganbera musika	270	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5
	ESPEZIALITATEA	Talde	180			1	1	1	1
		Korua		1	1				
EHAIE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Piano osagarria	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	270/300					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
Guztira			1290/1320	6,5	6,5	6,5	6,5	8,5/9	8,5/9

8.- Espezialitatea Klabezina, Organu eta Pianoa

IRAKASGAIAK			Orduak	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
GUTXIEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	300			1	1	1	1
		Talde		1	1				
		Korua		1	1	1	1		
EHAIE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Piano osagarria	150			1	1	1,5	1,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	240/270					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
Guztira			1200/1230	5,5	5,5	6,5	6,5	8/8,5	8/8,5

9.- Espezialitatea moko-xirula eta Ganba viola

IRAKASGAIAK			Orduak	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	300			1	1	1	1
		Talde		1	1	1	1		
	Korua		1	1					
E H A E		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Piano osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	270/300					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
	Guztira	1110/1140	6	6	6	6	6,5/7	6,5/7	

10.- Espezialitatea Txistu

IRAKASGAIAK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
				B	B	B	B	B	B
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Taldea (1)	300/360	1	1	1	1	1	1
		Korua		1	1	1	1		
E H A E		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Piano osagarria	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	270/300					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak						0,5/1	0,5/1
	Guztira	1170/1230	6	6	6	6	7/7,5	7/7,5	

**AUKERAKO IRAKASGAIK 5.a eta 6.a**

AUKERAKO OINARRIZKOAK	
ANALISIA	2
KONPOSIZIO OINARRIAK	2
MUSIKA HISTORIA	2
AUKERAKO OSAGARRIAK	
ERREPERTORIO- INSTRUMENTU NAGUSIA	30'
MUSIKOTERAPIA (LAU HILABETEKO)	60'
ENTZUMEN HEZKUNTZA	30'
INFORMATIKA MUSIKALA(LAU HILABETEKO)	60'
INSTRUMENTU OSAGARRIA	30'

B) Francisco Escudero

ESPEZIALITATEA: Acordeoa, Gitarra									
IRAKASGAIK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	300			1	1	1	1
		Korua		1	1				
		Taldea		1	1	1	1		
EHAIE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Akonpanameindu	90					1,5	1,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
	GUZTIRA	1140 / 1170	5,5	5,5	5,5	5,5	8/8,5	8/8,5	
ESPEZIALITATEA: Harpa									
IRAKASGAIK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika/Taldea	480			1	1	1	1
		Orkestra		2	2	2	2	2	2
EHAIE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
	GUZTIRA	1230/1260	5,5	5,5	6,5	6,5	8,5/9	8,5/9	



ESPEZIALITATEA: Egurrezko Haizea (saxofoia izan ezik), Metalezko Haizea eta kontrabaxua									
IRAKASGAIK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	480			1	1	1	1
		Banda / Orkestra		2	2	2	2	2	2
EHAE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
GUZTIRA			1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5
ESPEZIALITATEA: Saxofoia eta Perkusioa									
IRAKASGAIK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika/Talde	480			1	1	1	1
		Banda /orkestra		2	2	2	2	2	2
EHAE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
Total horas			1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5
Espezialitatea: bibolin, biola eta biolontxelo									
IRAKASKAGIAK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	480			1	1	1	1
		Orkestra		2	2	2	2	2	2
EHAE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
GUZTIRA			1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5



ESPEZIALITATEA: Kantu									
IRAKASGAIAK			ORDUA	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
		Hizkuntzak	270	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	180			1	1	1	1
Koru		1		1					
EHAE	ESPEZIALITATEA	Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
GUZTIRA			1290/1320	6,5	6,5	6,5	6,5	8,5/9	8,5/9
Piano									
ESPEZIALITATEA, KLABEZINA, ORGANOA ETA PIANOA									
IRAKASGAIAK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	300			1	1	1	1
		Koru		1	1				
EHAE	ESPEZIALITATEA	Talde		1	1	1	1		
		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Akonpainamendua	150			1	1	1,5	1,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
GUZTIRA			1200/1230	5,5	5,5	6,5	6,5	8/8,5	8/8,5
ESPEZIALITATEA: TXISTU									
IRAKASGAIAK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Koru	60	1	1				
		Talde	300	1	1	2	2	2	2
EHAE	ESPEZIALITATEA	Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	270/300					3,5	3,5
		Aukerako irakasgai osagarriak				1	1	1	1
GUZTIRA			1200/1230	5,5	5,5	6	6	7,5	7,5



ESPEZIALITATEA: Kitarra eta baxu elektrikoa									
IRAKASGAIK			ORDUAK	IKASTURTEAK ETA ASTEROKO DENBORA ORDUTAN					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentu nagusia	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
		Koru	60	1	1				
		Talde	240	1	1	1	1	2	2
EHAIE	ESPEZIALITATEA	Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Akonpainamendu	90					1,5	1,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30 / 60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1140 / 1170	5,5	5,5	4,5	4,5	8/8,5	8/8,5

OSAGARRIAK 5.a eta 6.a

AUKERAKO OINARRIZKOAK

ANALISIA	2
KONPOSIZIO OINARRIAK	2
MUSIKA HISTORIA	2
AUKERAKO OSAGARRIAK	
ERREPERTORIO- INSTRUMENTU NAGUSIA	30'
INFORMATIKA MUSIKALA(LAU HILABETEKO)	60'
INSTRUMENTU OSAGARRIA	30'
H. MUSIKALA PEDAGOGIAREN SARRERA (*)	1

C) Jesús Guridi**1.-Especialitatea: Akordeoia, Kitarra, Errenazimentu eta Barrokoko hari pulsatuzko instrumentuak**

IRAKASGAIK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
GUTXIENEZKOAK	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	120			1	1	1	1
		Talde	120	1	1	1	1		
		Korua	60	1	1				
EHAIE		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Akonpainamendua	90					1,5	1,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1140/1170	5,5	5,5	5,5	5,5	8/8,5	8/8,5

2.- Egurrezko Haizea (saxofoia izan ezik), Metalezko Haizeal eta kontrabaxua

IRAKASGAIAK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	120			1	1	1	1
		Banda	240	2	2	2	2		
		Orkestra	120					2	2
E H A E		Piano Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5

3.- Espezialitatea: Saxofoia eta Perkusioia

IRAKASGAIAK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	120			1	1	1	1
		Orkestra	120					2	2
		Banda	180		2	2	2		
E H A E		Piano Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pinaista laguntzailea	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5

4.- Espezialitatea: Bibolin, biola eta biolontxelo

IRAKASGAIK			ORDUAKo	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	120			1	1	1	1
		Orkestra	360	2	2	2	2	2	2
E H A E		Piano osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1320/1350	6	6	7	7	9/9,5	9/9,5

5.- Espezialitatea: Kontrabaxua

IRAKASGAIK			ORDUAKo	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATEA	Ganbera musika	120			1	1	1	1
		Banda	60	2					
E H A E		Piano Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio Pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
			GUZTIRA	1320/1350	6	6	7	7	9/9,5

6.- Espezialitatea Kantua

IRAKASGAIK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
		Hizkuntza	270	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5
	ESPEZIALITATEA	Ganbera Musika	120			1	1	1	1
Koru		60	1	1					
E H A E.		Piano Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1290/1320	6,5	6,5	6,5	6,5	8,5/9	8,5/9

7.- Espezialitatea Klabezina Organo eta Piano

IRAKASGAIK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
		Ganbera musika	120			1	1	1	1
	ESPEZIALITATEA	Taldea	120	1	1	1	1		
Korua		60	1	1					
E H A E.		Instrumentu Osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Akonpainamendu	150			1	1	1,5	1,5
		Aukerako irakasgai oinarrizkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1200/1230	5,5	5,5	6,5	6,5	8/8,5	8/8,5

8.- Espezialitatea: Txistu

IRAKASGAIAK			ORDUAK	Ikasturteak eta asteroko denbora ordutan					
				1º	2º	3º	4º	5º	6º
G U T X I E N E Z K O A K	KOMUNAK	Instrumentua	180	1	1	1	1	1	1
		Musika Hizkuntza	120	2	2				
		Harmonia	120			2	2		
	ESPEZIALITATE A	Taldea	300	1	1	2	2	2	2
		Korua	60	1	1				
E H A E		Instrumentu osagarria	60	0,5	0,5	0,5	0,5		
		Errepertorio pianista laguntzailearekin	90	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
		Aukerako irakasgai oinarritzkoak	240					4	4
		Aukerako irakasgai osagarriak	30/60					0,5/1	0,5/1
		GUZTIRA	1200/1230	6	6	6	6	8/8,5	8/8,5

AUKERAKO IRAKASGAIK 5.a eta 6.a

AUKERAKO OINARRIZKOAK	
ANALISIA	2
KONPOSIZIO OINARRIAK	2
MUSIKA HISTORIA	2
AUKERAKO OSAGARRIAK	
ERREPERTORIO- INSTRUMENTO NAGUSIA I	30'
ERREPERTORIO- INSTRUMENTO NAGUSIA II	30'
PIANO OSAGARRIA I	30'
PIANO OSAGARRIA II	30'
INSTRUMENTU OSAGARRIA I	30'
INSTRUMENTU OSAGARRIA II	30'
MUSIKA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK I	30'
MUSIKA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK II	30'
ENTZUMEN HEZKUNTZA I	30'
ENTZUMEN HEZKUNTZA II	30'
KONPOSIZIO TAILERRA	30'
OBOE KANABEREN ERAIKITZEA 1	30'
OBOE KANABEREN ERAIKITZEA 1I	30'
TEKLA IKASLEENTZAKO ORGANO I (*)	30'
TEKLA IKASLEENTZAKO ORGANO II (*)	30'

(*) 2011-12 ikasturterako baimenaren itxaron. (pone lo mismo en castellano)



2. IRAKASLEEN ANTOLAMENDUAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK

2.1.- IRAKASLEGOAREN LANALDIA

2.1.1.- URTEKO LANALDIA

Dagokion hezkuntza-akordioan araututako jardunaldi-motak eta egutegia edozein direla ere, 1.462 ordukoa izango da irakaskuntzako arduraldiko erregimena. Ebazpen honetan zehazten dira asteko jardunaldiko jarduera eta horren banaketa ikastorduetan, bai eta ordutegi osagarria eta ikastetxean igaro beharreko ordutegia ere.

Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 50. artikulua arabera, irakasle funtzionarioek eskubidea izango dute ordaindutako hogeita bi egun balioduneko oporraldia izateko urte natural bakoitzean, edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetara iristen ez bada, proportzioan dagozkien egunetako oporraldia izateko. Ondorio horietarako, larunbatak ez dira joko egun baliodunak.

Oporraldi hori abuztuan izango da urtero, eta inoiz ez da hartuko iraileko egunik.

Oporraldia eten egin ahal izango da horren barruan gaixoaldi edo istripuren bat gertatuz gero. Gorabehera horiek pasa eta medikuaren alta jaso ostean, interesdunak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du.

Aldi bakar batean hartuko da hartu gabeko oporraldia, eta, ahal izanez gero, irakastordurik ez dagoenean.

Aurreko artikuluan araututako oporraldiaren aurreko egun moduan metatuko dira Eusko Jaurlaritzaren mendeko langile publikoentzat araututako egunak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 48.1.k) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Negoziazio Mahai Orokorrak 2009ko azaroaren 18an hartutako akordioan (EHAA, 2010-02-26koa) xedatutakoari jarraiki, bai eta lege horretako 48.2. artikuluan ezarritako norberaren gauzetarako egun gehigarriak ere.

2.1.2.- ASTEKO LANALDIA

2.1.2.1. Ohiko dedikazioa duten irakasleak

- Funtzio publikoa berritzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean oinarriturik, dedikazio-erregimen bakarra hartzen da abiapuntutzat, gainerako funtzionario publikoentzat orokorrean ezarritakoaren modukoa.

- Lanaldi horretan, astean 30 ordu ikastetxeari zuzenean eskainitako dedikaziokoak izango dira. Dedikazio horretan, astean 23 ordu ikastetxean eman beharreko ohiko orduak izango dira eta horietako 17, batez beste, eskola-orduak izango dira. Gehienez ere 18 eskola-ordu izango dira.

- Ikastetxean eman beharreko gainerako orduak honela banatuko dira:

- Astean ordubete ikasleen guraso edota tutoreekin harremanetan izateko.

- Astean ordubete edo 2 ordu guardiak egiteko. Ikasketaburuak ezarriko ditu guardiak, eta beti ikastetxearen funtzionamendu onena lortzea izango du helburu. Kontuan hartuta irakasle ikastetxean emateko ordu guztietan gutxienez guardiako irakasle batek egon behar duela bertan, zuzendariak, hala behar izanez gero, irakasleen guardia-orduak gehitu ahal izango ditu.

- Astean 2 ordu sail didaktikoko bileretarako edo koordinazio pedagogikoko beste bilera batzuetarako.

- Astean ordubete edo 2 ordu ikastetxerako dedikaziokoak. Zuzendaritzak edo dagokion sailak, zuzendaritzaren onespenerekin, sustatzen dituen irakaskuntza-jarduerak, laguntza-jarduerak eta jarduera indargarriak izan daitezke. Zuzendaritzaren oniritzia izan beharko da beti. Era berean, prestakuntza-jarduerekin ordezkatu ahal izango dira.

Ikastetxeari zuzenean eskaini beharreko dedikazioko ordu osagarriak ondoko zereginetara zuzenduko dira: ebaluazio-bileretan eta epai-mahaietan eta klaustroetan bertaratzera, kide anitzeko organoetan parte hartzera, arloarekin lotuak kultura-jarduerak egitera, entzunaldietara, ikerketa eta argitalpena eta abar.

Irakasleek ez dute beren asteko ordutegian egun librerik izango.

- Irakasle bakoitzak ikastetxean egon ohi diren 23 orduak (15 eta 11 ordu, hurrenez hurren, jardunaldiaren 1/3 eta 1/2 murrizketa daukaten irakasleentzat), asteko egun guztietan banatuko dira, egunero ikastetxean gutxienez bi ordu egonik, astelehenetik ostiralera, jardunaldi osoa daukaten irakasleentzat, eta egunero ikastetxean gutxienez bi ordu egonik gutxienez hiru eta lau egunetan astean, hurrenez hurren, jardunaldiaren 1/2 eta 1/3 murrizketa daukaten irakasleentzat. Irakasleek egunean 5 ordu eman ahal izango dituzte gehienez.

Irakasle batek astean 18 eskola-ordu baino gehiago eman behar dituztenean, soberako ordu horiek guardia-ordutegitik kenduko zaizkio.

2.1.2.2.- Jardun murriztua duten irakasleak

a) Jardunaren 1/2 murriztea

Lan-jardunaren 1/2 murrizten den kasuetan, irakasleek astean 15 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko. Dedikazio horretatik, astean 11 ordu ikastetxean eman beharko dituzte, honela banaturik:

Astean 8 ordu gutxienez eskolak ematen. Beharrezkoa izanez gero, eskolak 9 orduz eman ahal izango dituzte, gehienez ere. Eskola-orduak ordubetez luzatzen direnean, gehikuntza hori orekatzeko jagoletza-ordua kendu egingo da.

- Astean ordu 1 ikasleen gurasoei arreta emateko.

- Astean 2 ordu 1 jagoletza egiteko edota didaktika-saileko bileretarako.

Astean zuzenean ikastetxeari dedikatu beharreko beste 4 orduak hileroko kontabilizatuko dira eta jarduera hauek egiteko erabiliko dira: sailaren jarduerak areagotzeko, tutoretza-plana garapena, Taldeko Organoen bilerak egiteko, Ebaluazio-batzordeetarako, ikastetxearen plangintza eta antolamenduko tresnak eratzeko, taldeko edo ikasturteko irakasleen koordinazio-bileretarako eta, halaber, bestelako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko.

b) Jardunaren 1/3 murriztea

Lan-jardunaren 1/3 murrizten den kasuetan, irakasleek astean 20 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko. Dedikazio horretatik, astean 15 ordu ikastetxean eman beharko dituzte, honela banaturik:

- Astean 11 ordu gutxienez eskolak ematen. Beharrezkoa izanez gero, eskolak 12 orduz eman ahal izango dituzte gehienez. Eskola-orduak ordubetez luzatzen direnean, gehikuntza hori orekatzeko jagoletza-orduak ordubetez murriztuko dira.

- Astean ordu 1 ikasleen gurasoei arreta emateko.

- Astean ordu 1 jagoletza egiteko.

- Astean 2 ordu didaktika-saileko bileretarako.

Astean zuzenean ikastetxeari dedikatu beharreko beste 5 orduak hileroko kontabilizatuko dira eta jarduera hauek egiteko erabiliko dira: Sailaren jarduerak areagotzeko, tutoretza-plana garapena, Taldeko Organoen bilerak egiteko, Ebaluazio-batzordeetarako, ikastetxearen plangintza eta antolamenduko tresnak eratzeko, taldeko edo ikasturteko irakasleen koordinazio-bileretarako eta, halaber, bestelako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko.

c) Jardunaren 2/3 murriztea

Beste aldetik, lan-jardunaren gainerako herena ematen duten irakasleek astean 10 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko. Dedikazio horretatik, astean 8 ordu ikastetxean eman beharko dituzte, honela banaturik:

- Astean 6 ordu eskolak ematen.
- Astean ordu 1 ikasleen gurasoei arreta emateko.
- Astean ordu 1 didaktika-saileko bileretarako.

Astean zuzenean ikastetxeari dedikatu beharreko beste 2 orduak hileroko kontabilizatuko dira eta jarduera hauek egiteko erabiliko dira: Sailaren jarduerak areagotzeko, Taldeko Organoen bilerak egiteko, tutoretza-plana garapena, Ebaluazio-batzordeetarako, ikastetxearen plangintza eta

antolamenduko tresnak eratzeko, taldeko edo ikasturteko irakasleen koordinazio-bileretarako eta, halaber, bestelako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko.

Atal honetan aurreikusitako kasuetatik edozeinetan, zernahi gorabehera dela eta, irakaslearen irakastorduen kopurua gehitu edo gutxituz gero, aldea edo diferentzia konpentsatu egingo da, zaintza-orduak gutxituz edo gehituz, dagokionaren arabera, edo beste jarduera batzuk esleitzuz, halako moldez non ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko orduen guztizko batura kasu bakoitzean ezarritakoarekin bat etorriko den.

d) Gaixotasun kronikoa duten familiartekoei arreta emateko baimena duten irakasleak.

2. mailara arteko senideei arreta emateko baimena duten irakasleek, indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoari jarraiki, 50 ordu izango dituzte ikasturteko. Baimen hori erabili ahal izateko, ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinazioan jardun behar dute, horrela, eskatzaileak ematen duen zerbitzuko beharrak estali ahal izango dira. Hori gauzatzeko orduan, hezkuntza- eta antolakuntza-koherentzia bermatu behar dira.

Pertsona eskatzailearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren artean eztabaida sortzen bada baimen hori erabiltzeko modua adostera, eta pertsona interesduna ez badator bat zuzendaritzaren erabakiarekin, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Hezkuntzako Lurralde Ordezkararen aurrean, eta horrek ebatziko du erreklamazio hori, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren.

2.1.2.3. Eskola-orduen heren bateko murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak direla eta eskola-orduen heren bateko murrizketa lortu duten irakasleek eta 60 urte baino gehiago duten edo urte honetan 60 urte betetzen dituzten irakasle guztiek, **(baldin eta 2010eko irailaren 1ean 65 urte ez badituzte**, edo 65 urte beteta izan arren, erretiroa hartzeko eskubidea kausatzeko beharrezko gabezia-aldia estalita ez badute edo egiaztatutako beharra aplikatzeko beste egoeraren batean badaude, Batzorde Parekideak aztertuta indarrean dagoen akordioari jarraiki), irakasletza zuzeneko jarduna astean 6 ordutan murriztu ahal izango dute. Murrizketa hori borondatezkoa da eta ez du esan nahi ikastetxean egon beharreko ordutegia murriztuko denik.. Irakasle horiek murrizketa-orduak ikastetxearen laguntzarako zereginetara zuzenduko dituzte:

- Liburutegiko lanetara,
- Eskolaz kanpoko jarduerak
- Prestakuntza-jarduerak antolatzen laguntzera
- Ikastetxearen zuzendaritzak esleitzen dizkien antzeko beste lan batzuetara.



Jarduera horietara zuzentzen diren orduak beren ordutegi pertsonalean jasoaraziko dira.

2.1.2.4.- Txandakako lan-kontratua duen irakaslea.

Indarrean dagoen legedia hartuko da oinarri, eta, hala badagokio, baita Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzek horri dagokionez zehazten dituzten ildoak ere.

2.2. ZUZENDARITZA-TALDEAREN ORDUTEGI-MURRIZKETAK

Ordutegi-murrizketak irakaskuntzako zuzendaritza-karguen arabera 39 ordukoak izango dira.

Zuzendaritza-taldeak berak banatuko du denbora hori dauden karguen artean eta, ondoren, Ikuskatzaitzari emango dio egindako banaketaren berri.

Nolanahi ere, zuzendaritza-taldeen ostegunetan ez dute eskola-jardunik izango lan-bilerak edo erakunde-bilerak egin ahal izateko.

Zuzendaritza-taldea asteen behin gutxienez bilduko da bere eskumenen jardun bateratua eta koordinatua gauzatzearren.

Ordutegi orokorrean aurreikusi beharko da ikastetxea martxan denean zuzendaritza-karguren bat bertan edo berehala aurkitzeko moduan egotea beti.

Ikastetxeetako zuzendariak beren dedikazio-orduen zati bat gorde egin beharko dute deitzen dieten bileretan parte hartzeko.

2.3. ORDUTEGIAK

2.3.1 . ORDUTEGIAK LANTZEA

Ikasketaburuak, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36.2.f) eta 41.c) artikuluek xedatu dutenaren arabera, irakasle bakoitzari dagozkion kurtsuak eta taldeak esleituko dizkio, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezarri eta klaustroak ezagututako irizpideak aintzat hartuta.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak dagozkion irizpideak finkatu ezean, ikasketaburuak honako sistema hau erabiliko du: irakasle guztiek, batek ere huts egin gabe, bata bestearen ondorengo hautaketa-erronda edo -txandak egitea taldea aukeratzeko, hurrengo ordenaren arabera:

- 1.- Karrerako irakasle funtzionarioak eta lan-kontratu mugagabedunak, ikastetxean duten antzintasuna dela-eta bertan behin betiko plaza dutenak.
- 2.- Ikastetxe behin betiko destinoa ez badute irakasleak, ikasturte honetan zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko destinoan badaude. Kasuan kasuko kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.
- 3.- Lan-kontratu mugagabeduna duten irakasleak, ikastetxean behin betiko destinorik ez dutenak.
- 4.- Ordezkapenatarako zerrendetako irakasleak, dagokien baremoa aplikatuta.

Horri buruzko zalantzarik izanez gero, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak argituko du.

2.3.2. IKASTETXEAREN ORDUTEGIA ONARTZEA ETA JAKINARAZTEA

Irakasleak ikasketaburuak prestatu eta zuzendariak behin-behineko onartu duen ordutegia bete beharko du.

Ordutegiari dagokionez egiten den edozein erreklamazio lurralde-ordezkariek ebatzi beharko du, eta horretarako Hezkuntza Ikuskatzailtzak aurretik egindako txostena kontuan izango du.

Irakasleen aretoko iragarki-taulan, ikasketa-burutzako iragarki-taulan eta ikastetxeko estamentu guztiak sartzen diren beste tokiren batean, argi eta garbi ikusiko den lekuan, jarri beharko da ikastetxearen unean uneko egoera adieraziko duen informazioa. Era berean, zuzendaritza-kargu bakoitzak ikastetxean ematen duen ordutegia eman beharko da aditzera.

Informazio horrek guztiak ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goreneko kide guztien esku egon beharko du eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokituta egon beharko du.

2.3.3.- ORDUTEGIA BETETZEA

Irakasleek ordutegi lektiboa nahiz ez-lektiboa bete behar dute. Honetarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagozkion kontrol-mekanismoak erabili ahalko ditu.

Inolako justifikaziorik gabe ordutegia betetzen ez bada, zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzari jakinarazi beharko zaio, eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean araututakoari jarraiki, dagokion kopurua soldatetik kendu ahal izango da, izan dezakeen diziplina-erantzukizunean eragin gabe.

Era berean, greba egiten bada, ikastetxeko zuzendariak greba horrek izan duen eraginari buruzko datuak emango dizkio zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzari, eta, horrez gain, hurrei ahalik eta arreta egokiena emateko antolaketa prestatuko du, eskura dituen giza baliabideekin.

Hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak aurreko hileko bertaratze-agiriak bidali beharko dituzte Ikuskaritzako zonalde burutzara. Irakasleek greba egiten dutenean, aipatutako bertaratze-agiriaz gain, greba egin duten langileen izenen zerrenda bidali beharko da grebaren biharamunean.

Ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-agiriak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinarazitako jarraibideak jarraituz. Aplikazio bera erabiliko da greben gorabeherak jakinarazteko eta greba egin duten langileen izen-abizenen zerrenda prestatzeko.

Hileroko agiriak irakasle guztien bertaratze-agiriak izango dira, eta betetzeko honako argibide hauek hartuko dira kontuan:

- Ezingo da bete gabe utzi "hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tarteak; hala utziz gero, hutsa arrazoirik gabekotzat hartuko da.

- Hutsegite guztiak aipatu behar dira, inongo salbuespenik gabe.

- "Hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartean "norberaren eginbeharrak" Hezkuntza Lurralde Ordezkariek irakasleari dagokion lizentzia eman badio bakarrik jarri ahal izango da.

- Ordutegi lektiboan egindako kanpo-ekintzak ez dira hutsegiteak izango, beraz, ez dira laburpenean hutsegite bezala azalduko.

- Irakasleek behar bezala aurkeztu beharko dizkiote hutsegitearen arrazoitze-agiriak Zuzendariari, honek noiz eskatu zain egon gabe. IRALE edo antzeko ikastaroak egiten ikastetxeaz kanpo dabiltzan irakasleek ikastaroa egiten ari diren lekuan bertan aurkeztu beharko dituzte egindako hutsegiteak arrazoitzeko agiriak.

- Bertaratze-agiriaren aldakia jendaurrean jarriko da irakasleen gelan, hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen. Beste kopia bat Ordezkaritza-Organoren esku utziko da. Kopia hauetan, "Hutsegitearen arrazoa" azaltzeko tartea bete gabe geratuko da. Hutsa justifikatuta ala arrazoirik gabekoa den besterik ez da azalduko.

- Eskolak betiko moduan ematearen aurkako edozein gorabehera berehala jakinarazi behar zaio telefonoz Ikuskaritzari, bertaratze-agirian jasota geratuko bada ere.

Bertaratze-agiriarekin batera ez da hutsegiteen ziurtagirik bidaliko. Horiek ikastetxean artxibatu eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Frogagiritan hutsegitearen eguna, ordua eta arrazoa zehaztu beharko dira. Orijinalak eta argiak izan beharko dute.

2.3.4. BAIMENAK

- Baimena eman ahal izango zaie langileei biltzarretara, ikastaroetara, mintegietara, sinposiumetara, topaketetara, lehiaketetara, elkarrizketetara, hitzaldietara, bileretara, jardunaldietara eta gainontzeko gertaera artistiko, zientifiko, tekniko-profesional, kolegial, elkartzeko mailako edo sindikaletara joateko, zerbitzu-beharren arabera, tokian tokiko Lurralde Ordezkaritzak alde aurretik baimena eman ondoren.

- Baimena, langilearen ekimenez gertakaria izan baino hogeita egun, gutxienez, lehenago kontserbatorioko zuzendariari eskatutakoa, ikasturte bakoitzeko bost egunetara arte ordainduko da, eta hortik gainerako egunak ez dira ordainduko. Ez da inolako kontzeptu dela-eta diru-ordainik emango, ezta dietak, bidaia-gastuak, egonaldia edo izena ematea ere. Izan ere, interesatuak bere gain hartu beharko ditu gastu horiek. III. eranskinetako ereduaren arabera beteko da eskaria.

- Baimen-eskaria kontserbatorioko zuzendariari bidaliko zaio, erakunde antolatzailearen programa edo dokumentuaren kopiarekin batera; dokumentu horretan jardueraren agiria eta eguna jaso beharko da; horrezaz gain, baimenaz baliatzearen galdutako klaseak erreperatatzeko ordutegia ere jaso beharko da. Ordutegi hori ikaslearekin edota legezko ordezkariarekin idatziz hitzartuta egon beharko du, beti ere I. eta II eranskinetako ereduaren arabera.

- Kontserbatorioetako zuzendariak beren lurraldeko Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko dituzte aurkeztutako proposamenak, eskatutako baimena emateari edo ez emateari buruzko haien iritziekin batera.

Lurralde Ordezkariek, Hezkuntza Ikuskaritzak alde aurretik txostena eman ondoren eta aurkeztutako agiriak kontuan hartuta, eskatutako baimena emango dute ala ez dute emango, zerbitzu-beharren arabera.



2.3.5. JARDUERETARA BERTARATZEA ETA FUNTZIOAK ESLEITZEA

Gogoan izan behar da ezinbestekoa dela programatutako noizean behingo jardueretara bertaratzea (klaustroetara, sailen bileretara eta ikastetxeari eskaini beharreko dedikazioko ordutegiaren barruan deitzen dieten beste bileretara).

Ordutegiak betetzen ez badira eta ebaluazio-bileretara, klaustroetara edo deitzen diren bileretara joaten ez bada, hutsegiteen agirian jaso beharko du ikasketaburuak, bidezko administrazio-ondorioak izan ditzan.

Urtarrilaren 31ren ondoren ikasle batek baja hartzen duenean edo baja hori aurretik izan bada eta hutsunea bete ezin izan bada, zuzendaritzak erabaki beharko du hutsik geratu zaion denbora hori zertan emango duen irakasleak,

alegia, beste ikasle batzuei ematea denbora hori, atzeratutako ikasleen errekupeziorako, aurreratuen daudenak sendotzeko, eta abar.

Hartzen den erabakia idatziz jakinarazi beharko zaio Hezkuntzako Ikuskatzailtzari, jakinaren gainean egon dadin eta bidezko kontrola egin dezan.

3.- IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAMENDUAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK

3.1. IRAKASGAIEEN ETA TALDEEN BANAKETA

irakasgai eta espezialitate guztien guztizko orduen kopurua kalkulatu da eta beren irakasle titularrei esleituko zaie.

Irakasle titlarrak titular den espezialitateko orduekin osatuko du bere ordutegia.

Horretarako ordu nahikorik ezean, ordutegiak honela osatuko dira: irakasleek dituzten titulazioen ondorioz eman ditzaketen irakasgaiekin, ekainaren 2ko 989/2000 Errege Dekretuarekin bat (ekainaren 22ko BOE).

Aurreko kasuak agortu ondoren, irakasleren bati esleitzeko ordurik geratuko balitz, nahitaezko 17 irakastorduak bete arte, honako hauek esleitu ahal izango zaizkio: bestelako irakasgai-orduak, horretarako titulazio edo irakasteko gaitasunik aski badu.

Irakasteko gaitasun askitzat joko da musika-eremuaren espezialitate jakin baten barruan lehenago emandako irakaskuntza jakin batean aurretik egiaztatutako esperientzia edo eskarmentua.

Irakasteko gaitasunaren figura aplikatu, eta bi irakasleren arteko berdintasuna gertatzen bada, irakasleek aukera egingo dute, eta Musika Irakasleen Kidegoan edota lan-legepeko irakasle izaeran antzinasunik handiena duenak hautatuko du lehendabizi.

Irakasle batek, irakasteko gaitasuna egiaztatuta ere, ez du inoiz espezialitate bateko ordurik hartuko espezialitate horretako titularren aurretik, azken horiek ordu horien beharrean badaude, behintzat.

Azkenik, espezialitateko irakasle titlarrak edo beste espezialitate batzuetako titlarrak bere gain hartu ez dituzten orduekin sortzen diren hutsuneak ikasturtearen hasieran egiten den esleipen-prozesuan eskainiko dira. Hutsune horiek osatzean ahalik eta koherentzia pedagogikorik handiena bilatu beharko da, ahalik eta espezialitate partekatu gutxien eta beren curriculum-hurbiltasun handiena lortu beharko da. Era berean, lortu behar da espezialitate bakoitzean espezializazio-maila handia batera ez agertzea, ahalik eta maila-kopururik txikiena sortzea eta abar.

3.2.- RATIOAK ETA ESKOLA-DENBORAK

3.2.1.- RATIOAK ETA IRAKAS-DENBORAK TAULA HAUETAN ADIERAZITAKOAK DIRA.

Eskola-denborak eta ratioak honako irizpide hauen arabera banatu beharko dira:

Oinarrizko hezkuntzak

Ikasgaia	Ratioa
Espezialitateko instrumentua eta kantua	1
Musika hizkuntza	15
Instrumentu- praktika	---
Koru	---

Lanbidezko hezkuntzak

Ikasgaia	Ratioa
Espezialitateko instrumentua eta kantua	1
Musika hizkuntza	15
Intrumentu osagarria	---
Harmonia	8
Akonpanameindua	3
Ganbara musika	2 – 7
Orkestra / Banda / Talde Instrumentala	---
Korua	---
Hizkuntza kantua	6
Pianista edl klabezinista laguntzailearekin errepertoria	1
Musikaren historia	15
Konposizio-oinarriak	4
Analisisa	8
Instrumentu nagusiaren errepertorioa	1
Aukerako Osagarriak	s/tipo

3.2.2.- HORIEK APLIKATZEKO IRIZPIDEAK HAUEK IZANGO DIRA:

Talde-kopurua ikasle-kopurua zati gehieneko ratioa eginda sortzen dena izango da. Hondarrik balego, honela jardungo da:

- Kopuru hori gehieneko ratioaren erdia gehi bat bada, beste talde bat osatuko da. Gehieneko ratioaren kopuru bera bada edota txikiagoa, osatutako taldeetan banatuko da ikasle-kopuru hori. Esate baterako: Harmoniako 37 ikaslerekin 8 ikasleko 4 talde sortzen dira, eta 5 ikasleko hondarra geratzen da; hala, beste talde bat osatuko da, 5.ena. 36 ikasle izanez gero, 4 talde osatuko dira, eta 4 ikasleko hondarra izango genuke; hala, lau ikasle horiek osatutako taldeetan sartuko dira, eta ez da beste talde bat osatuko.

Ikastetxeak egoera berezi bat dagoela erabakitzen badu, dagokion salbuespena eska dezake, justifikatuta eta, betiere, dauden giza baliabideekin egoera hori ase badaiteke.

3.3. EKINTZAK

Ikasleek jasotzen duten banakako irakaskuntzaren barruan, jendaurreko emanaldien bitartez ikasleen berezko gaitasuna sustatu beharko dute ikastetxeek. Hala, ikasle guztiek ikasturtearen barruan emanaldietan parte hartu ahal izateko beharrezko mekanismoak ezarriko dituzte kontserbatorioek.

Era berean, taldeko ekintzak sustatuko dituzte musika-irakaskuntzen oinarritzko ardatz gisa, eta horretarako praktika hori ikastetxean modu egonkorrean burutu ahal izateko beharrezko giza bitartekoak eta bitarteko materialak jarriko dira.

Zuzendaritza-taldeak finkatuko ditu talde bokalak eta instrumentalak, osaerari, ordutegiari eta funtzionamenduari dagokionez. Ildo horretan, hezkuntza-elkarteko sektoreetako ordezkariak osatuko duten kudeaketa-batzordea sortu ahal izango da. Batzorde horrek Ordezkaritza Organo Gorenaren onespina izan beharko du, eta Hezkuntzako Ikuskatzaitzari jakinaraziko zaio. Egunez eguneko funtzionamenduaren ondorioz, berariazko araudia lantzea komenigarria bada, araudi hori kudeaketa-batzordeak landu beharko du eta organo eskudunak onartu beharko du.

Instrumentuen arloko gastua, instrumentuen eta taldekideen aseguruak, atrilak, partiturak, partizelak eta abar ikastetxearen beraren aurrekontuen bitartez ordainduko dira, aurrekontu-aukeren arabera beti.

Irakasleek talde-jardueretara eskainiko duten dedikazioa dagokien taldeen eta beren premien arabera kalkulatu da. Zuzendaritza-taldeak finkatu beharko du aplikazio horrek bete beharreko irizpidea, bai eta tartean zenbait irakasle badago, izango duen banaketa ere.

3.4.- KOORDINAZIO PEDAGOGIKOKO ORGANOK

Koordinazio pedagogikoko organoek jarduera akademikoen eta osagarrien koherentzia ziurtatu behar dute, hezkuntza-helburuak lortzera eraginkortasunez bidera daitezten.

Bi organok gutxienez bideratuko dute koordinazio pedagogikoa: sailek eta koordinazio pedagogikoko batzordeak.

3.4.1. SAILAK

- Sail didaktikoak arlo edo irakasgai bera edo, hala badagokio, antzeko arlo edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleen arteko koordinazioa bermatzeko helburua duten lan-taldeak dira. Sail didaktikoek arduradun edo buru baten zuzendaritzapean jardungo dute. Organo horietan baterako lana egingo da eta egiten diren lanak bertako kide guztien erantzukizuna izango dira.

3.4.1.1. Sailak eratzea

- Ikastetxeko sailak eratzeko proposamena lantzean, klaustroak ondoko arauak bete beharko ditu nahitaez:

1.- Eskola-orduren bat ematen duten ikastetxeko irakasle guztiek sail didaktiko batekoak izan beharko dute.

2.- Irakasle bat ezin izango da bi sail didaktikotan egon. Irakasle batek bi saili edo gehiagori dagozkion irakasgaiak ematen dituenean, eskola-ordu gehien ematen duen irakasgaien sailean soilik barne hartuko da. Dena den, ematen dituen beste irakasgaiei dagokien sailen bileretara bertaratu ahal izango da eta sail horien lanetan eta erabakietan parte hartu ahal izango du.

3.- Gehienez ere zortzi izango dira sailak, eta bertako buruek ordainsari osagarria jasotzeko eskubidea izango dute.

4.- Ikastegiko sailak eratzeko proposamena onartu ostean, zuzendariak proposamena ikuskatzaitzako barrutiari helaraziko dio. Horrek proposamenak lehentxeago adierazitako baldintzak betetzen dituen egiaztatuko du. Hala gertatzen bada, ikuskatzaitzak oniritzia emango dio proposamenari eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara igorriko du, dagozkion ondorio ekonomikoak eta administratiboak izan ditzan.

5.- Antolamendu eta koordinazio pedagogikoko ondorioetarako, ikastetxeak bere Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudian aurreikusten dituen adina sail ezarri ahal izango du. Hala ere, saileko buruaren ordainsarien ondorioetarako, ikastetxeek ondoko sail didaktikoak eratzeko eskubidea izango dute, betiere dagokien sailean gutxienez berariazko bi irakasle badaude:

- I.- Hari Sails, ondokoetan banatu ahal izango da:
 - Biolina, biola, biolontxelo eta kontrabaxua.
 - Harpa, gitarra, zia-instrumentuak, hari pulsatuzko instrumentuak
- II.- Haize Sails, ondokoetan banatu ahal izango da:
 - Flauta, oboea, klarinetea, fagota, saxofoia, txistua, moko-txirula
 - Tronpeta, tronpa, tronboia eta tuba.
- III.- Tekla Sails, ondokoetan banatu ahal izango da:
 - Pianoa.
 - Errepertorioko piano jotzaileak
 - Piano osagarria.
 - Organoa eta klabezina.
- IV.- Pianista eta klabezinista errepertoristen Sails.
- V.- Akordeoi eta Perkusio Sails, ondokoetan banatu ahal izango da:
 - Akordeoia.
 - Perkusioa.
- VI.- Musika Hizkuntzako Sails.
- VII.- Orkestra, Taldea, Ganbera-musika, Koru eta Kantuko Sails.
- VIII.- Azterketa, Harmonia, Konposizio Oinarrien eta Musikaren Historiaren Sails.

Beste aukerak beren definizioa eta helburuak direla-eta egokien dagokien sailean sartuko dira.

Musika-tresna osagarriak eta errepertorioak irakasten dituztenak beren lana egiten duten sailean sartuko dira; oster, hainbat sailetan jarduten badute, denbora gehien pasatzen duten sailean sartuko dira, eta gainerakoekin saileko buruaren bitartez koordinatuko dira.

Sailen beste edozein antolamendu edo banaketa egin nahi izanez gero, Ikastetxeen Zuzendaritzari eskatu beharko zaio, eta behar bezala justifikatu beharko da onar dadin.

Aurreko zerrendan barne hartzen ez diren espezialitate edo irakasgaietan, zuzendariak zehaztu beharko du espezialitate edo irakasgai horiek zein sailetan adskribitu beharko diren. Espezialitate edo irakasgai horien eta sailen arteko antzekotasunak edo eraginkortasunik handiena hartuko du aintzat.

Hainbat sailtako diziplinak ematen dituen irakaslea denbora gehien eskaintzen dion sailaren bileretara joango da. Gainera, hilean behin, gutxienez, dedikazio txikiagoa eskaintzen dioten beste sailen bileretara joan beharko du.

Sail bakoitzak, banatuta edo banatu gabe egon, buru bakarra izango du ondorio administratiboetarako.

3.4.1.2. Sailaren funtzioak

Ondokoak izango dira sailen funtsezko zereginak eta eskumenak:

- a) Sailean barne hartzen diren espezialitate eta irakasgaien programazioa lantzea, saileko buruaren koordinazio eta zuzendaritzapean.
- b) Espezialitateei dagozkien programazioen eta sailaren irakasgaien arteko koherentzia bermatzea.
- c) Ebaluazio-irizpideak finkatzea eta ikasleei gutxienez eskatu beharreko edukiak zehaztea.
- d) Sailean barne hartzen diren irakaskuntzen garapen artistiko handiagoa ekarriko duten ekintza osagarriak antolatzea eta burutzea.
- e) Sailean barne hartzen diren irakasgaien eta espezialitateen programazioaren garapena ebaluatzea.
- f) Ikasturtearen amaieran programazioaren garapena eta lortu diren emaitzak ebaluatuko dituen memoria lantzea. Lortutako emaitzetatik sailak ateratzen dituen ondorioak barne hartuko dira memorian.

3.4.1.3. Sailaren bilerak

Ikastetxearen ordutegian gutxienez ordu bat gorde beharko da astean saileko kide guztiak bildu ahal izateko. Ordu hori ikastetxearen funtzionamenduko ordutegiaren barruan hartuko da.

Sailak ikasturtearen hasieran bildu beharko dira hasteko dagoen ikasturteari dagokion baterako lan-plana egiteko. Ikasturtearen amaieran ere bildu egin beharko dira amaitzen den ikasturteko estatistikak eta memoria lantzeko eta lortu diren helburuak azertu eta hurrengo ikasturterako beharrezko berrikuntzak sartzeko.

3.4.1.4. Sailen programazioak

Sailen programazioan barne hartu beharko dira helburuak, edukiak, erabili beharreko metodologia, aldiak, ebaluazio-sistemak eta errekupeazio-sistemak eta irakasgaietan sartu ahal izango diren berrikuntzak –orokorrean zein ebaluazio bakoitzean–, bai eta irakaskuntza berrien programazioaren garapena ere.

Ondokok dira ikasturte hasierako programazioak:

- Saileko irakasleen laneko gida orokorra, irakasle guztiek jarraitu behar dutena.
- Sailean ikasturte amaieran egindako lana ebaluatzeko erreferentzia-puntua.
- Ikasleei maila gainditzeko eska dakizkiekeen gutxienezko erreferentzia-puntuak.
- Ikuskaritza-lanerako erreferentzia-puntua.
-

3.4.1.5. Sailaren burutza

Dagozkien sailek proposamena egin ondoren, zuzendariak izendatuko du Saileko irakasle bat, Sailaren burutzarako, ikastetxean behin betiko destinoa duten irakasleen artean. Sailen batek izendapen-proposamenik egin ezean, zuzendariak izendatuko du Saileko burua, ohiko dedikazioa duten irakasleen artean, ahal bada.



Ondoko eskumenak izango ditu:

- a) Sailaren baterako jarduera akademikoa zuzendu eta koordinatzea.
- b) Sailaren bilerak deitu eta bileren buru izatea.
- c) Bilera bakoitzeko akta egitea.
- d) Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan, beste ikastetxe edo entitate batzuekiko harremanak sustatzea, prestakuntza-ekintza osagarriak antolatzea.
- e) Ikasturtearen amaieran memoria idazteaz arduratzea.

Sailaren burutzak ezin izango du, aldi berean, gobernuko kide bakarreko organorik bete.

3.4.1.6.- Sailaren dokumentazioa:

Ikasturte hasieran programazioaren kopia bat eta ikasturte amaieran memoriaren kopia bat utzi beharko dira ikasketa-burutzan, Hezkuntzako Ikuskatzailtzak eskura ahal izan dezan.

Sailaren bilkuren aktak akta-liburuan jaso beharko dira. Akta-liburuak kide bakarreko eta kide anitzeko organoen eskura egon beharko du, bai eta Ikuskatzailtzaren esku ere.

3.4.2. KOORDINAZIO PEDAGOGIKOKO BATZORDEA

Gutxienez hilean behin bilduko da. Saileko buruez eta ikasketaburuaz gain, beste irakasle batzuek ere hartu ahal izango dute parte, zuzendaritza-taldearen iritziz aholkularitza eta lankidetzako funtzioak bete ahal izango dituzten irakasleek hain zuzen ere.

Koordinatzaile pedagogiko bat izendatu ahal izango da. Koordinatzaile pedagogiko horrek ondoko funtzioak eta erantzukizunak beteko ditu ikasketa-burutzaren zuzendaritzapean eta ikuskatzailtzapean:

- Curriculum-proiektua eta hezkuntza-proiektua lantzeko eta abiarazteko lanak koordinatzea.
- Zikloak eta bere irakasleak koordinatzea.
- Kontserbatorioaren eta ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetzaren bultzatzea, Legeak ezarritako eta dagozkion xedapenek araututako baliozkotze, liberazio eta curriculumaren egokitzapenak eta ordutegi-antolamenduak koordinatzea.

Koordinatzaile hori saileko burutzat hartuko da eta ezin izango du aldi berean inolako sailen burutzarik bete.

3.5. GUARDIAK

Ikastetxea eta bereziki beronen ordezkari den zuzendaria ikasleen erantzulea izango da eskola-orduen barruan. Hori dela-eta, guardiei behar bezala erantzuteko adina irakaslek egon beharko dute ikastetxean.

3.5.1. FUNTSEKO ZEREGINAK:

1. Ikasleez arduratzea beren irakaslea bertan ez egoteagatik edo beste arrazoi batengatik libre geratzen direnean.
2. Bere txandan gertatzen diren gertakariak unean bertan ebaztea, ikasketaburuari ahalik eta azkarren horien berri ematearen kalterik gabe. Asistentzia behar duen ikastetxeko edozein pertsonak asistentzia hori jasotzeko beharrezko kudeaketak egin beharko ditu.
3. Bere txandan irakasleen puntualtasunari eta bertaratzeari buruzko agiria egitea. Hutsegiteen agiria behar bezala erabili beharko du.

3.5.2. GUARDIEN AGIRIA:

Ikasketaburuak guardien eguneko agiria gordeko du. Agiri horretan gutxienez ondoko datuak eman beharko dira aditzera:

- Irakasleen hutsegiteak eta atzerapenak.
- Ikastetxean antzemandako gertakariak eta gertatu diren istripuak.
- Guardiako irakasleen sinadura.

3.6. TUTORETZAK

Zuzendaritza-taldeak tutore bat esleituko die ikasleei. Tutore ez diren irakasleak zeregin zehatzetarako koordinatzaile izendatu ahal izango dira, eta zuzendaritza-taldeak esleitzen dizkien zereginak beteko dituzte.

3.6.1. IRAKASLE TUTOREAREN FUNTZIOAK

Irakasle tutoreak ondoko funtzioak izango ditu, besteak beste:

- a) Ikasle bakoitzaren jarraipena egitea, bere heziketan esku hartzen duten irakasleengandik informazioa biltzea eta tutoretza-ekintzaren ondoriozko ikasleen dokumentu akademikoak betetzea.
- b) Hezkuntza-indargarriak eta curriculum-egokitzapenak ezartzea, halakorik behar duten ikasleentzat, eta horiek gauza daitezen ziurtatzea.
- c) Ikasle baten heziketan esku hartzen duten irakasleei deitzea, beren jarduna koordinatzeko eta sortzen diren arazoak ebazteko.
- d) Ikasketaburuaren deialdiaren ondoren, ebaluazio-bilerak antolatzea eta bileren buru gisa jardutea.
- e) Irakasleen bertaratze eta diziplinako hutsegiteak kontrolatzea eta Ikasketaburuari ohartaraztea. Honek familiak jarriko du jakinaren gainean.
- f) Ikasturtearen hasieran, helburuen, eskola-programen eta ebaluazio-irizpideen berri ematea ikasleei eta beren legezko tutoreei; ikasturtearen barruan, hezkuntza-prozesuaren eta ebaluazioen berri ematea.
- g) Irakasleak taldean integra daitezen erraztea eta ikastetxeko ekintzetan parte har dezaten sustatzea.
- h) Irakasleei beren aukera akademiko eta profesionalei dagokienez orientatzea eta aholkuak ematea.
- i) Sortzen diren arazoetan, ikasleen eskari eta kezkak gainerako irakasleen eta zuzendaritza-taldearen aurrean bideratzea.

Irakasleen legezko tutoreen arreta jaso ahal izateko, elkarrizketa-ordutegia finkatuko da. Legezko tutore horiek ezarritako ordutegian etortzerik ez badute, elkarrizketa beste ordutegi batean egin dadin eskatu ahal izango dute. Haatik, behar besteko aurrerapenez egin beharko dute, tutoreak une egokia proposatu ahal izan dezan. Era berean, tutoreak ikaslearen ibilbidearen berri emateko beharrezkoa ikusten duen guztietan deitu ahal izango die ikaslearen gurasoei.

3.6.2. HUTSEGITEEN KONTROLA

- Irakasle guztiak nahitaez kontrolatu behar dute beren eskoletara joan behar duten ikasleen bertaratzea, eta gertatzen diren hutsegiteak dagokien tutoreari jakinarazi beharko dizkiote. Tutoreak, bestalde, ikasleen hutsegiteen jarraipena egiteko ardura izango du.
- Familiei ikasleek egindako hutsegiteen berri eman beharko zaie, eta horretarako Ikastetxearen Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Araudian xedatutakoari jarraituko zaio. Araudi horretan gai horri buruzko araurik ematen ez bada, Ordezkaritza Organo Gorenak finkatu beharko du.

familiekin harremanetan jartzeko epea, hutsegiteen berri puntuala eta zuzena bermatzearen.

- Ikasketaburuak hutsegite horiek ikasleen gurasoei bidezko epeetan jakinarazteko bitartekoak finkatuko ditu, eta zuzendariak argibide egokiak eman beharko dizkie tutoreei eta/edo ikastetxeko administrazio-langileei.

4.- IKASLEEN ANTOLAMENDUAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK

4.1.- IKASLEEN ANTOLAMENDUA

Ikastetxearen plangintzak erraztu egin beharko du ikasleak bere curriculumeko irakasgai guztietako eskoletara koordinaturik bertaratu ahal izatea. Ikasleak kontserbatoriora irakasgai solteetarako joan beharra saihestuko du.

Era berean, kontuan izan behar da, LOEko 47. artikulua indarrez, 16 urtetik beherako ikasleek erregimen orokorreko ikasketetara joatea ezinbestekoa dutela, Administrazioak irakaskuntza hauek eta erregimen orokorreko irakaskuntzak aldi berean egiteko erraztasunak eman behar dituela. Horrenbestez, irakaskuntza hauek eta erregimen orokorrekoak aldi berean jarraitzeko aukera emango duten eta erraztuko duten bidezko antolamendu-mekanismoak finkatuko dira.

Ikasle guztien behin betiko ordutegiak finkatu ondoren, eta ordu libreak geratzen badira, Kontserbatorioek laguntza, indartze eta erreuperazioko jarduerak egin ahal izango dituzte halako jarduerak behar dituzten ikasleentzat.

4.2.- ESPEZIALITATE-ALDAKETA

Instrumentu-espezialitatea aldatu nahi duen ikasleak beste instrumentu horren sarbide-proban aurkeztu beharko du. Proba gainditzen badu, dagoeneko gaindituta dituen irakasgaiak baliozkotu egingo zaizkio.

4.3.- SAILAREN TITULARTASUNEN KONTSERBATORIOETAKO IKASLEEN ESPEDIENTEA LEKUALDATZEA

Autonomia-erkidegoko hiru kontserbatorioetako ikasle ofizialek lehentasuna izango dute beste kontserbatorioetakoren batean onartzeko, eta eskabidea egitean, ez dute hautespen-probarik edo antzeko bestelakorik gainditu beharko, egiten ari diren espezialitatearen ikasketekin jarraitu ahal izateko.

Eskabidea egiteko unean destinoko kontserbatorioan postu hutsik ez badago, itxaron-zerrendan lehen postua beteko dute. Hala ere, sartzeko aukerarik izan ez badute, hurrengo ikasturtean sartzeko lehentasuna izango dute, betiere ikastetxe horretako bertako ikasle ofizialen eta sartu berri diren LOGSEko irakaskuntza profesionalak ondoren, maila horren plangintzaren arabera.

Kontserbatorioek onartu ahal izango dituzte beste ikastetxeetatik, hutsik dauden lanpostuak direla eta, eta beste EAEko kontserbatorio publikoetatik baita itxaron-zerrendetako eskaerak ikusi ondoren, matrikula lekualdaketak.

4.4. IKASLEEN ORDUTEGIA

Ikastetxearen ordutegi orokorra guztiz bete beharko da, eta, hala, ahalik eta ikasle gehien kokatu beharko dira ezarritako iritzi eta lehentasunen arabera, eta ikastetxearen giza baliabideen arabera.

Kontserbatorioaren taldeetan parte hartzen duten ikasleek lehentasuna izango dute irakasgai guztietako ordutegia aukeratzean, talde horietan beren jarduna burutu ahal izan dezaten.

4.5. BERARIAZKO NEURRIAK

Irakaskuntza berrietako ikasleak irakaskuntza horiek aldi batera egiteko ezarritako neurriez baliatu ahal izango dira, baliozkotzeei, curriculum-egokitzapenei, antolamenduari eta abarrei dagokienez.

4.6. MATRIKULARI UKO EGITEA

Edozein ikaslek eskatu diezaioke ikastetxeko zuzendariari, arrazoi eta guztiko idazki baten bidez eta ikasturtearen lehen hiruhilekoan eskatu ere, matrikulari uko egitea. Matrikulari uko egiteek, ikastetxeko zuzendaritzak onartuz gero, ikastetxeko ikasle-izaera galtzea ekarriko dute, eta ikaslea matrikulatuta zegoen irakasgai guztietako izen-ematea ezeztatzea.

4.7. IKASLEAK BERTARATZEA

Ikasleek eskoletara joateko obligazioa dute, eta ezin izango da sistemarik ezarri matrikulatuta dagoen irakasgaietako eskoletara borondatez joan ahal izatea onartzeko. Beste ikasketa batzuetan dagoeneko eman duten irakasgaia baliozkotzeko prozesuan diren ikasleak soilik salbuetsiko dira. Irakasleek, halaber, ikasleek beren eskoletara ez joatearen ondorioz egindako hutsegiteak kontrolatu egin beharko dituzte.

Arau hori betetzeko honela jardungo da:

- 1.- Irakasle bakoitzak atzerapenik gabe igorri beharko dio ikasketaburuari bere ikasleen hutsegiteen agiria. Hutsegite justifikatuak eta justifikatu gabek jaso beharko dira. Ikasleek hutsegiteak justifikatzeko aurkeztu dituzten frogagiriak gaineratu beharko dira.

Adin txikikoen hutsegiteen justifikazioa gurasoek edo tutoreek egin beharko dute eta frogagiria dagokion irakasleari eman beharko diote. Ikasle helduek edozein lan-harremanetan eska daitezkeen antzeko frogagirien bitartez justifikatu beharko dituzte beren hutsegiteak. Hutsegiteen justifikazioa ikasketaburuaren bitartez egingo da.

- 2.- Sailek txostena eman ondoren, Pedagogia-koordinaziorako batzordeak ezarriko du irakasgai jakin batean etengabeko ebaluazioa integratzailea erabili ezina dakarren hutsegiteen zenbatekoa. Zenbateko hori, denan den, inola ere ez da izango dagokion irakasgaiaren ikasturtea osatzen duten eskolen ehuneko hogeitau bati gutxiago (6 hutsegite, asteko ordubeteko irakaskaietan; eta 12 hutsegite, 2 orduko irakaskaietan). Batzorde berari dagokio, halaber, kasu bakoitzari ondoen egokitzen zaion ebaluazio-prozedura zein den ezartzea.
- 3.- Aurreko paragrafoan esandakoa gertatu, eta kurtso bat osatzen duten irakaskaiaren erdian edo gehiagotan ezinezko bada ebaluazioa aplikatzea, ikastetxetik baja hartzea ekarriko du horrek, eta eskola-postua galtzea.
- 4.- Egoera horiek ebazteko, kontuan izan beharko da irakasgai bateko eskoletara bertaratzeari erabat edo zati batean utzi dion ikaslea ekaineko ohiko deialdian

kalifikatu beharko dela beti, eta halaxe jasoko da kalifikazioen liburuan eta aktetan, non eta bertaratzetik ezaren ondorioz baja eman edota matrikulari egin dion ukoa onartu ez den. Izan ere, etengabeko eta integratzaile ebaluazioaren sistemaren bitartez irakasleak lortutako maila kalifikatzeko aukera emango dioten elementuak izango ditu.

4.8. IKASTETXEZ KANPOKO JARDUERA DIDAKTIKOAK

Ikastetxe batek aurreikusten badu ikastetxe horretatik kanpo jarduerak (bisitaldiak, txangoaldiak kontzertuak, , etab.) egitea ikasleen irakastorduen barruan, jarduera horiek jarduera osagarriaren programan sartuta egon beharko dute, eta hala ez bada, Ordezkaritza Organo Gorenak aurretik onetsi beharko ditu.

Jarduera didaktikoak ikastetxea kokaturik dagoen herritik kanpo joatea dakarrenean, adin nagusikoak ez diren ikasleen gurasoen baimena idatzia behar da eta legediak horri dagokionez zehaztu dezakeena betetzea ere.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein ekintzatan bi irakaslek, gutxienez, lagunduko dituzte ikasleak. Ikasleak laguntzeko gehienezko irakasle-kopurua honako hau izango da: irakasle bat 20na irakasleko edo, gutxiago badira 10etik garako taldeko; betiere, lehen aipatu den gutxienezko irakasle-kopurua zainduko delarik. Ahal den neurrian, jarduera horretan parte hartzen duen/duten taldearen edo taldeen ekipo didaktikoa osatzen duen pertsonen artetik aterako dira irakasle laguntzaileak.

Zuzendariak, edo hark izendatutako beste batek, ikasleek ikastorduetan egiten dituzten irteeren eta ikastetxean edo hortik kanpora egindako eskolaz kanpoko ekintzen erregistroa eraman, eta eguneratuta edukiko du, honako hauek jasoz: edukia, iraupena, zein orduetan eta zein egunetan egin diren. Txosten horrek ikastetxean egon beharko du, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Ikuskaritzak eskatzen dutenerako.

5.- IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTZEN DIREN ALDERDIAK

Ebaluazio-bileretan irakaskuntza-taldea biltzen da. Ikasle-taldearen irakasle tutorearen koordinaziopean egiten diren bileretan, bileraren egunera arte egin diren ebaluazio-jardueren emaitzak kontsignatzen dira, betiere bidezko eztabaida egin ondoren.

Nolanahi ere, ebaluazio-prozesua abenduaren 11ko 299/2007 Dekretuak arautuko du, musikako irakaskuntza profesionalen curriculum eta irakaskuntza horiek jasotzeko bidea arautzen dituenak (16. artikuluan); halaber, ondorengo lerroetan adieraziko diren zehaztapenak ere aintzat hartuko dira.

5.1. EBALUAZIO-BILERAK

5.1.1. Ebaluazioaren baldintzak

- Ebaluazio-bilera baliozkotzat har dadin ondoko baldintzak bete beharko dira gutxienez:

- a) Taldeko irakasle guztiek bertaratzeko aukera izango duten ordutegian egin beharko dira.
- b) Dagokien taldeko irakasleen bi herenek gutxienez bertaratu beharko dira.

5.1.2. BILERAREN AKTA

- Ebaluazio-bilera bakoitzeko ebaluazioaren bilkura-akta bat idatzi beharko da, eta akta horretan ondoko alderdiak gutxienez jaso beharko dira:
 - a) Bertaratutako irakasleen zerrenda, beren sinadurekin.
 - b) Bertaratu ez diren irakasleen zerrenda; espresuki adierazi beharko da bidezko baimena duten ala ez duten.
 - c) Lortutako emaitzen analisia eta irakasgaietan sortu ahal izan diren arazoak.
 - d) Taldearen egoera orokorraren analisia, errendimendu akademikoari dagokionez, eta taldearen jarrerak eta arazoak.
 - e) Banako arazo jakin batzuen analisia, eta hezkuntza indartzeko neurriak hartzea edo beste motaren bateko jardunak burutzea.

5.1.3. APARTEKO PROBAK

Irakaskuntza profesionaletako kurtsoetako bakoitzak bukatu ondoren, eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, irakasle guztiak osatutako ebaluazio-taldeak hartuko du ikasle bakoitza hurrengo kurtsora igarotzeko buruzko erabakia.

Ikasleek egin ahal izango dute etengabeko ebaluazio-prozesuan gainditu ez dituzten irakasgaien aparteko proba bat. Proba hau, irakasgai bakoitzaz arduratzen diren didaktika-departamentuek egin eta kalifikatuko dutena, ekainean egingo da, kontserbatorioetako eskola-egutegietan aurreikusitako 160 klase-egunek bukatu ondoren.

5.2. KALIFIKAZIOEN GAINKO ERREKLAMAZIO-PROZEDURA:

Ikasle guztiak dute beren errendimendu akademikoa objetibotasunez baloratua izateko eskubidea. Alabaina, eskubide hori gauzatzeko ezinbestekoa da ikasleak ikasturtearen aurretik irakasgaien gutxieneko eduki-helburuak ezagutzea, bai eta ikasturte eta irakasgai bereko ikasle guztiak berdintzat aplikatuko zaizkien ebaluazio-irizpideak ezagutzea ere. Hori dela eta, ikastetxeak eduki-helburu horiek eta ebaluazio-irizpide horiek jakinarazi beharko ditu, orokorrean jakin daitezkeen. Sailen programazioek, bestalde, adierazitako puntuak jaso beharko dituzte.

Ikasleek beren kalifikazioan eragina izan dezaketen azterketa edo proba idatzi guztiak zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko eskubidea izango dute. Ikasleek proba edo azterketa idatziak ikusi ondoren, dagokien sailean gordeko dira urtebetez.

5.2.1. ERREKLAMAZIOAK IKASTETXEAN

Azken kalifikazioekin ados ez dauden ikasleek kalifikazioak berrazter daitezkeen eskatu ahal izango dute idatziz, eta, hori egiteko, azken kalifikazioak jakinarazi edo jendaurrean jartzen direnetik hasita hiru irakasteguneko epea izango dute.

Eskaeran azken kalifikazioarekin edo hartutako erabakiarekin ados ez egotea justifikatuko duten alegazio guztiak bildu beharko dira eta ikastetxeko zuzendariari zuzenduko zaizkio. Zuzendariak egin den erreklamazioa dagokion sailean aurkeztuko du, eta sail horrek erreklamazioari buruz eztabaidatu beharko du. Sailak proba eduki-mailekin bat datorren eta ezarritako eta aditzera emandako ebaluazio-irizpideekin bat datorren hartuko du aintzat batez ere.

Erreklamazio hori onartu bada, saileko buruak idatziz emango dio ikasketaburuari berraztertutako kalifikazioa berresteko edo aldatzeko erabaki arrazoitua, eta horrek interesatuari helarazi beharko dio.

5.2.2. IKASTETXEAZ KANPOKO INSTANTZIEN AURREKO ERREKLAMAZIOA

Ikastetxean egindako berraztertze-prozesuaren ondoren lortutako kalifikazioarekin ados ez badago, ikasleak alegazio-idatzi bat aurkeztu ahal izango dio Ikuskatzaitzako Lurralde Burutzari. Ikastetxeko zuzendariari horren berri emango zaio eta zuzendariak ondoko dokumentazioa igorriko dio Ikuskatzaitzari: erreklamazioaren xede diren jatorrizko ariketak; programazioa, eskatzen den maila eta ebaluazio-irizpideak jasotzen duen sailaren dokumentazioa; eta ikastetxe bertako instantzietan erreklamazioak izan duen prozesuaren dokumentazioa.

Hezkuntzako Ikuskatzaitzak berari aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta dagokion sailak aldeztu aurretik finkatu dituen programazioaren edukietara eta ebaluazio-irizpideetara egokitzen den edo egokitzen ez den hartuko du aintzat. Nolanahi ere, Ikuskatzaitzaren txostena eta proposamena Hezkuntzako lurralde-ordezkarari bidaliko zaizkio, eta lurralde-ordezkarari horrek bidezko erabakia hartu eta arrazoituko du. Erabaki hori lehenbailehen jakinaraziko zaio zuzendariari, honek aplikatu dezan eta interesatuari jakinaraz diezaion. Lurralde-ordezkararen ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

6. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA

6.1.- OSASUN-LARRIALDIAK IKASTETXEETAN

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu beharko dute, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

6.2.- OSASUN-ARRETA ESKOLA-ORDUETAN.

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, Jaurlearitzako Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an erabaki zuen jarduera-protokoloa beteko da (ikusirik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web-orria).

6.3.- IBILGAILUAK IKASTETXERA SARTZEKO MODUA

Ikastetxe batera sartzen den edozein ibilgailuk zuzendaritzaren baimena izan beharko du.

Sartzeko baimena baldin badu, ezin izango da ikasleak sartu eta irteten direnean eta jolasaldietan sartu. Gainera, adostutako prozedura bat ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta eskola-esparruaren barruan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, baita seinalizatzea ere. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak ezagutuko dute.

Aparteko egoera batean ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendaritzak edo eskuordetzen duen pertsonak lagundu beharko diote ibilgailuari.

6.4.- OBRAK

Agian eskola-ordutegian obrak egin beharko dira ikastetxe batean.

Kasu batzuetan, proiektuak segurtasun- eta osasun-azterketa bat sartzen du. Edonola ere, obrak segurtasun-plana sartzen duen edo ez alde batera utzita, ondorengo puntuak derrigorrezkoak izango dira:

1º.- Obren eta irakaskuntza-guneak erabat bereiztea. Honek puntu hauek exijitzen ditu:

- a) Obra-gunea erabat hesitzea.
- b) Sarbide independenteak, bai bakarrik obrakoak diren ibilgailuetarako, bai obrako pertsonalarentzat.
- c) Obrakoa ez den pertsona orori sartzea galarazteko kartela.
- d) Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzea galarazteko kartela.

2º.- Plano bat ikastetxearen sarreran eta obra-gunean ikusteko moduan jartzea. Plano horretan bi guneek argi eta garbi bereizita, koloreen arabera, agertu beharko dute, behar diren sarbide eta adierazpenekin. Plano hori ere ikastetxeko zuzendaritzaren eskura jarriko da.

3º.- Obretako ibilgailuak irakaskuntza-gune irekitik sartu behar izanez gero, obrako arduradunak betiere izan beharko du pertsonala, sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonalaren segurtasuna bermatzeko.

6.5.- SEGURTASUN LAGUNTZAILEA

Dagozkion eginkizunak burutzeko, hezkuntza-kudeaketarako ikastetxeari emandako ordu-murrizketaren zati bat esleitu ahal izango dio zuzendariak. Prebentzio zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle honen ordutegian asteartean 8etatik 11etara klaserik ez izatea ahaleginduko da.

Zuzendaritza Taldeari gogorarazten zaio desiragarria litzatekeela laguntzailearen figura ikastetxean egonkortasun maila bat duen langileari esleitzea lanari jarraitortasuna emateko.

6.6.- IRAKASLERIAREN PRESTAKUNTZA PREBENTZIO ARLOAN

Prebentzio arloan Hezkuntza Sailaren 31/1995 Legearen 19. artikuluan xedatutako prestakuntza beharrezkin betetzeko xedez, eta 31/1995 Lege horren 29. artikuluan xedatutako langileek betetzeko, irakasleriaren prestakuntza edo/ta ikastetxerako arduraldi orduetatik gutxienez urtero 2 ordu utziko dira prebentzio arloko prestakuntzarako. Prestakuntza Prebentzio Zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du beharrezko aurrerapen egokiz zehaztutako egun eta ordutegian.

6.7.- LARRIALDIETAKO SIMULAZIOAK

Ikastetxeetan ebakuazio jarduera gutxienez urtean behin burutzeko betebeharra gogorarazten dugu.



6.8.- TABAKO ETA ALKOHOLDUN EDARIAK

Ikastetxeko Zuzendaria indarreko araudia betetzeaz arduratuko da, ikastetxeetan ikasleen eta irakaskuntza mota alde batera utzita, tabako eta alcoholdun edarien espedizioa eta kontsumoa debekaturik baitago eta era berean hala eskatzen duten ekipo eta instalazioen mantentzeaz.

6.9.- BOTIKIN ERAMANGARRIA

486/1997 Errege Dekretuak lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen ditu. Errege Dekretu horrek xedatzen duen arabera, lantoki orok gutxienez botikin eramangarri bat izango du, honako hauek edukiko dituena: desinfektante eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak, erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta iraungi edota erabili bezain laster ordezkaturiko da.

6.10.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Gogorazten dizuegu lan-arriskuaren prebentzioari buruzko informazio gehiago hurrengo helbidean duzuela: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>, Prebentzio-Zerbitzua zatian edo bestela Prebentzio Zerbitzuko teknikariei kontsulta eginez.

<i>LURRALDEA</i>	<i>ESKUALDEA</i>	<i>TELEFONOA</i>
<i>ARABA</i>	<i>1 ESKUALDEA</i>	<i>945 01 84 51</i>
<i>BIZKAIA</i>	<i>1 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 92</i>
	<i>2 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 93</i>
	<i>3 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 93</i>
	<i>4 ESKUALDEA</i>	<i>94 403 11 92</i>
<i>GIPUZKOA</i>	<i>1 ESKUALDEA</i>	<i>943 02 31 74</i>
	<i>2 ESKUALDEA</i>	<i>943 20 84 44 Ext 181</i>

Horretaz gain ikastetxe publikoek langileenganako eraso kasuetan Jarduteko Gida edukiko dute.

7. HEMEN JASO GABEKO KONTUAK

Zirkular honetan jasotzen ez diren gaietarako, honen osagarri da Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2011-2012 ikasturtea antolatzeko moduari buruzko Ebazpena, (Hezkuntza sailburuordearena).

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 12a.

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izp.: María Antonia Ozcáriz Rubio



I. ERANSKINA. BAIMENA ESKATZEKO ORRIA

BAIMEN-ESKARIA

.....irakasleak,
 baimena eskatzen du honako egun
 hauetarako:.....(e)ko.....aren.....(e)rako, ondoren zehazten den
 jarduera egiteko:.....

Eskolak errekupezeko proposamena eta ikasleen adostasuna eransten dizkiot honi, egun-aldaketa eta ondorengo errekupezioa direla eta.

ERAGINDAKO IKASLEAK

OHIKO ORDUTEGIA

ERREKUPERAZIOA

.....

.....

Irakaslearen sinadura

Kontserbatorioko zuzendaria

II.ERANSKINA. ESKOLAK ERREKUPERATZEKO ORRIA

_____ ikaslea ados
dago _____ irakasleak eskola-eguna eta -ordua
proposatutako aldatzearekin.

Ikaslea adingabekoa bada, aitak/amak edo legezko tutoreak izenpetu behar du adostasuna.

OHIKO ORDUTEGIA

ERREKUPERAZIOA

.....

.....

**Ikaslearen edo
aitaren/amaren edo NAN
tutorearen izen-abizenak**

**Ikaslearen edo
aitaren/amaren edo
tutorearen sinadura**

Kontserbatorioko zuzendaria